

7

Urak irakin du

presente de nor-nork [recapitulación] • ilundu du, urak irakin du • oraciones concesivas • duela 50 urte • hotzak nago • -dun, -keta, -gailu • oraciones de relativo: sustantivación (III) • -(e)nez gero

En este tema repasaremos el presente de las formas **nor-nork**. Tales formas responden al esquema que viene a continuación y consta de los siguientes morfemas:

1. Morfemas **nor** (objeto directo).
2. El pluralizador **-it-** que aparece en todas las personas salvo en **ni** y **hura**. También aparece con **zu**.
3. La raíz **-u-**.
4. El morfema **-zte-** correspondiente a **zuek (nor)**.
5. Morfemas **nork** (sujeto).

Al coincidir los morfemas **itu + te** se intercala una **z**: zaituzte, gaituzte, dituzte.

| | NOR | plural | raíz | zuek | NORK | |
|---------|-----|--------|------|------|-------|---------|
| {ni} | NA | | | | T | {nik} |
| {hi} | HA | | | | K/N | {hik} |
| {hura} | D | | U | | — | {hark} |
| {gu} | GA | it | | | GU | {guk} |
| {zu} | ZA | it | | | ZU | {zuk} |
| {zuek} | ZA | it | | zte | ZUE | {zuek} |
| {haiek} | D | it | | | {z}TE | {haiek} |

Combinando estos morfemas obtenemos el siguiente cuadro:


| Nork | Nor | | | | | | |
|------|-----------|-------|---------|---------------|----------|------------|-------------|
| | NI | HI | HURA | GU | ZU | ZUEK | HAIK |
| NIK | | haut | dut | | zaitut | zaituztet | ditut |
| HIK | nauk/naun | | duk/dun | gaituk/gaitun | | | dituk/ditun |
| HARK | nau | hau | du | gaitu | zaitu | zaituzte | ditu |
| GUK | | haugu | dugu | | zaitugu | zaituztegu | ditugu |
| ZUK | nauzu | | duzu | gaituzu | | | dituzu |
| ZUEK | nauzue | | duzue | gaituzue | | | dituzue |
| HAIK | naute | haute | dute | gaituzte | zaituzte | zaituztete | dituzte |

Una vez más, insistimos en que este curso no trabajaremos la segunda persona **hi**.

ADITZ KOMUNZTADURA (CONCORDANCIA DEL VERBO)

Estas formas verbales tienen en la oración sus correspondientes sintagmas **nor** (objeto directo) y **nork** (sujeto), con los que concuerdan. Tales sintagmas, a menudo, resultan reiterativos y pueden suprimirse, porque la información ofrecida por el verbo es suficiente, como puedes ver en los siguientes ejemplos:

| | |
|-----------------------------|-------------------------------|
| Amak haurra garbitu du. | Etxera eramango zaitugu. |
| Liburu bat erosi dut. | Beldurtu egin gaituzu. |
| Zuk sagarrak jan dituzu. | Horiek jo egin gaituzte. |
| Zuek autoan ekarri nauzue. | Nik ongi ezagutzen zaituztet. |
| Lagunek kalean ikusi naute. | Euriak harrapatuko zaituzte. |
| Maite zaitut. | |



| NORK (ZERK) | NOR (ZER) | | NOR | it | u | zte | NORK |
|-------------|------------|-----------------|-----|----|---|-----|------|
| amak | haurra | garbitu | d | | u | | — |
| nik | liburu bat | erosi | d | | u | | t |
| zuk | sagarrak | jan | d | it | u | | zu |
| zuek | ni | kotxean ekarri | na | | u | | zue |
| lagunek | ni | kalean ikusi | na | | u | | te |
| nik | zu | maite | za | it | u | | t |
| guk | zu | etxera eramango | za | it | u | | gu |
| zuk | gu | beldurtu egin | ga | it | u | | zu |
| haiek | gu | jo egin | ga | it | u | | zte |
| nik | zuek | ongi ezagutzen | za | it | u | zte | t |
| euriak | zuek | harrapatuko | za | it | u | zte | — |

ILUNDU DU / URAK IRAKIN DU

1. Hay ciertos verbos que cuando se emplean para expresar fenómenos meteorológicos carecen de sujeto, son impersonales: **euria egin** (o **ari izan**), **elurra egin**, **atertu** (*escampar*), **ilundu**, **argitu**, etc.

Por lo que solemos decir:

| | |
|--------------------------|---------------------------------------|
| Euria egin du. | <i>Ha llovido.</i> |
| Elurra ari du. | <i>Nieva.</i> |
| Berehala atertuko du. | <i>Pronto escampará.</i> |
| Eguna argitu du. | <i>Ha amanecido.</i> |
| Neguan goiz iluntzen du. | <i>En invierno anochece temprano.</i> |

En todas estas locuciones falta un sujeto **nork**.

2. Hay otros verbos como **iraun** (*durar*), **irakin** (*hervir*), etc., que en euskera llevan auxiliar transitivo (**zer-nork**), pero que carecen de objeto directo (sintagma **zer**):

| | |
|---|---|
| Gerrak luzaro iraun zuen. | <i>La guerra duró largo tiempo.</i> |
| Eguraldi onak bihar arte iraungo du. | <i>El buen tiempo durará hasta mañana.</i> |
| Harriak egurrak baino gehiago irauten du. | <i>La piedra resiste más que la madera.</i> |
| Urak irakin du. | <i>El agua ha hervido.</i> |

Lo mismo podríamos decir de ciertos préstamos recientes como **korritu**, **funtzionatu**, **desfilatu**, etc., que vulgarmente se utilizan con auxiliar transitivo:

Honek ez du funtzionatzen.

Esto no funciona.

Sanmartzialetan euripean desfilatu dute.
etc.

En San Marciales han desfilado bajo la lluvia.

ARIKETAK



Bete itzazu hutsuneak, **nor-nork** formak erabiliz.

Completa los huecos, usando las formas nor-nork.

1. Ixabelek bere gela garbitu
2. Goizeko eguzkiak elurra urtu
3. Zeinek eramango ni etxera?
4. Lan honek asko nekatzen ni.
5. Lehergailuak hiru pertsona zauritu
6. Tabakoak hil egingo zu.
7. (Zuk gu) Arratsaldean ez hemen ikusiko.
8. (Nik zuek) Kale Nagusian ikusi paseatzen.
9. Zuek zenbatean saltzen tomateak?
10. Gu gauez ibiltzeak ez beldurtzen.
11. Zuek zer egingo ostegunean?
12. Etsaiek alde guztietatik inguratu gu.
13. (Guk zuek) Bihar Irunera eramango
14. Guk barazkiak azokan erosten
15. Horiek ni ez berehala harrapatuko.
16. Nik zuek herriko jaietara gonbidatzen
17. Zuek gu goizetik lantegian aurkituko
18. Zu botika honek azkar sendatuko
19. Zuek ni lotsatuta utzi
20. Guk zu gogoan
21. Ni goizero kaleko zarakak esnatzen
22. Zuk oso lagun atseginak
23. Irakasleak gu beste gela batera aldatuko
24. (Zu) Ardo honek ez berehala mozkortuko.
25. (Gu) Inork ez maite.
26. Liburu honek laster aspertuko (zu).
27. Horiek zuek zergatik bidali kanpora?
28. (Zuek gu) Gezur horiekin ez ikaratuko.
29. Ehiztariek txoriak hil
30. (Guk zu) Ez hemen ikusi nahi.
31. (Zuk gu) Harrituta utzi
32. Itsasoaren edertasunak liluraturik utzi ni.
33. (Nik zu) Nondik ezagutzen?
34. Zerk harritzen zu?
35. Guk zu aukeratuko alkate izateko.
36. Maribik bere etxean afaltzera gonbidatu (gu).
37. Zuk ni zergatik jo
38. Nik eskuak garbitu behar
39. (Nik zu) Ez behin ere ahaztuko.
40. Izebak oso maite zuek.
41. Zuek gu denbora luzean eduki zain.
42. Labana honek punta zorrotzegia
43. Hego-haizeak arratsaldera arte iraungo
44. Kafe honek irakin egin
45. Pila hauek denbora gutxi irauten
46. Udaberrian goizago argitzen



Esaldi hauek itzultzeko, **nor-nork** aditzak erabili behar dituzu.
Para traducir estas frases, debes usar los verbos nor-nork.

1. Miren ha perdido las llaves.
2. Eso no me asusta.
3. Nosotros te elegiremos a ti.
4. ¿Quién te ha peinado?
5. Os bajaré al pueblo.
6. Tenemos que acostar a los niños.
7. No nos quieren recibir.
8. Te llevaré a las cinco.
9. Tú no me quieres.
10. Yo no os conozco.
11. Me habéis dejado preocupado.
12. Os echarán a la calle.
13. Enseguida te alcanzaré.
14. Este trabajo no nos aburre.
15. Os voy a ensuciar (os ensuciaré).
16. Nos has dejado admirados.
17. No queremos asustarte.
18. En verano amanece muy temprano.
19. Está lloviendo.
20. En los montes de Navarra ha nevado.

IRAKURGAIA

ERAZTUN GALDUA

Miller jaun-andreak, Sir Alexander eta Lady Elizabeth, antzinako jauregi zahar horietako batean bizi dira. Ez dute seme-alabarik. Datorren azaroan Australiara joatekoak dira, eta, abiatu baino lehen, beren ilobak bildu nahi izan dituzte: Robin, Eric, Harry eta Agatha.

Robin Smith, berrogeita hamar urteko gizon lodia, Glasgowero lantegi bateko zuzendaria da. Bere emazte Victoriarekin etorri da afarira.

Eric Mortonek banketxe batean egiten du lan. Gizon dotorea eta diruduna izan arren, mutilzahar geratu da; diru arazoek ez omen diote ezkontzeko astirik utzi.

Harry Parker ere ezkongai da. Diotenez, desfalkoren bat-edo egin zuen, eta kartzelan igaro ditu azken urteak.

Agatha Hall, denetan gazteena, medikuntza ikasten ari da. Laster ezkontzekoa da eta Dick Backer bere senargiarekin agertu da. Agatha Lady Elizabethen iloba kutuna da. Afaldu bitartean, nahiko giro hotza izan da. Egia esan, lehengusu-lehengusinen arteko harremanak beti izan dira hotzak. Gutxitan ikusten dute elkar eta gaur bildu baldin badira, osaba-izeben herentziaren esperantzak ekarri dituelako izan da. Gainera, Morton eta Parkerrek gorrotoa ere badiote elkarri. Hala ere, Lady Elizabethek denak bere inguruan bildu nahi izan ditu agur esateko.

Ez zitzaion axola

9

presente de nor-nori: zait/zaikit • pasado de nor-nori: zitzaidan/zitzaikidan • el caso motivativo: -gatik • finales-causales: -t(z)eagatik • t(z)arren • -keria, aldi

NOR-NORI: ORAINALDIA (PRESENTE DE NOR-NORI)

Antes de aprender el pasado del auxiliar **nor-nori**, repasa en el **Bakarka 2** (5. ikasgaia, 63. or.) las formas del presente: **zait, zaizu, zaio, zaigu, zaizue, zaie**. Recuerda, asimismo, que si el sujeto, el elemento **nor** o **zer** en este caso, es plural, añadimos el morfema **-zki-**, por lo que las formas anteriores se convierten en **zaizkit, zaizkizu, zaizkio, zaizkigu, zaizkizue, zaizkie**.

ARIKETAK



Bete itzazu esaldietako hutsuneak, **nor-noriren** orainaldia gogoratzeko. *Repasa el presente de nor-nori, llenando los huecos de estas frases.*

1. Josuneren initzia zuzena iruditzen **zait** niri.
2. Zuri kirola egitea ondo etorriko
3. Pellori lan erraz bat komeni
4. Guri berehala bukatuko pazientzia.
5. Zuei lanera joateko ordua iritsi
6. Neskatei papina puskatu
7. Niri tea limoi tanta batzuekin gustatzen
8. Niri mentazko goxokiak gustatzen
9. Zuri gosaria hoztuko
10. Zuri patatak erreko
11. Izebari eraztuna galdu
12. Izebari betaurrekoak galdu
13. Guri arazo hori ez axola.
14. Guri gai horiek ez interesatzen.
15. Ikasleei liburua ekartzea ahaztu
16. Ikasleei liburuak ahaztu
17. Nagusia oso gogor mintzatu morroiari.
18. Guri oso oker atera gauzak.
19. Niri bost minutuz atzeratu erlojua.
20. Zuri ilea harrotu haizearekin.
21. Soineko hauek zarpailak iruditu Felisari.
22. Haurrari zapatak askatu
23. Lanerako, isiltasuna gustatzen niri.
24. Zuei mendian ibiltzea komeni
25. Atea ireki duzunean paper guztiak nahastu (niri).
26. Sutondoan berehala berotuko eskuak (zuri).
27. Josefari alaba zaharrena ezkondu
28. Neska hauei Suedian ibili direla nabari
29. Niri pintura modernoa asko gustatzen

NOR-NORI: LEHENALDIA (PASADO DE NOR-NORI)

El pasado de **nor-nori** comienza por **zitgai-** y, como todas las formas de pasado, termina en **-n**. Entre ambos intercalamos el elemento **nori**:

zitgai nori n

de donde resulta el siguiente paradigma:

| | | |
|-------|-------------------|-----------------------|
| Niri | atzo giltza galdu | ZITZ AidAN |
| Hiri | | ZITZ AidAN/NAN |
| Hari | | ZITZ AidION |
| Guri | | ZITZ AidIGUN |
| Zuri | | ZITZ AidIZUN |
| Zuei | | ZITZ AidIZUEN |
| Haiei | | ZITZ AidIEN |

Adibideak:

Hori ez **zait** gustatu.
Eso no me ha gustado.

Zer gertatzen **zaizu**?
¿Qué te ocurre?

Ez **zaio** ezer axola.
Nada le importa.

Ogia bukatu **zaigu**.
Se nos ha acabado el pan.

Zer iruditu **zaizue**?
¿Qué os ha parecido?

Autoa hondatu **zaie**.
Se les ha averiado el coche.

Hura ez **zitzaidan** gustatu.
Aquello no me gustó.

Zer gertatzen **zitzaizun**?
¿Qué te ocurría?

Ez **zitzaion** ezer axola.
Nada le importaba.

Ogia bukatu **zitzaigun**.
Se nos acabó el pan.

Zer iruditu **zitzaizuen**?
¿Qué os pareció?

Autoa hondatu **zitzaien**.
Se les averió el coche.



Eman itzazu perpaus hauek lehenaldian. *Pon estas frases en pasado.*

1. Argia itzali zait.
2. Zuri oso azkar gastatu zaizu dirua.
3. Txakurrari katea puskatu zaio.
4. Herri hura benetan ikusgarria iruditu zaigu.
5. Zaharra zelako hondatu zaizue autoa.
6. Neska haiei ez zaie futbola interesatzen.
7. Gillerkori aurpegiko kolorea aldatu zaio.
8. Erlojua ordu biak eta bostean gelditu zait.
9. Zer gertatu zaizu lagunekin?

10. Pintura bukatu zaigu.
11. Aita oso serio mintzatu zaio semeari.
12. Martini ez zaio zigarro bat ere geratzen.
13. Guri ez zaigu egoki iruditzen horrela ibiltzea.
14. Kanpoan egon bitartean atea itxi zaizue.
15. Gaixoari jateko gogoa etorri zaio.
16. Gauza harrigarri bat gertatu zaie nire lehengusuei.
17. Niri konturatu gabe joaten zait denbora.
18. Itziarri pomada horrekin sendatu zaio zauria.
19. Lutziri grano bat atera zaio sudurrean.
20. Transformadorea hondatu zaigu.



Perpauk hauek itzultzeko, **nor-nori** formak erabili behar dituzu.
Para traducir estas frases, tienes que usar las formas nor-nori.

1. ¿Qué te pareció el libro?
2. Me pareció muy bueno.
3. Sin embargo a Mertxe no le gustó demasiado.
4. ¿Qué os ocurrió ayer?
5. Se nos olvidó la llave dentro de casa.
6. A éste se le averió el coche en el camino.
7. A éstos se les quemó el caserío.
8. La lluvia les vino muy bien a las flores.
9. A Josefa se le casó el hijo menor.
10. Eso no me importaba.
11. El perro nos salía diariamente al camino.
12. Con el viento se nos apagaba la luz.
13. A nosotros nos convenía aquel sitio.
14. Al enfermo se le rompió el termómetro.
15. Se me metió una piedra en el zapato.

Si el elemento **nor** o **zer** es plural, lo mismo que en el presente, debemos intercalar el pluralizador **-zki-**, de donde resultan las siguientes formas:

| | | |
|-------|---------------|-----------------|
| Niri | giltzak galdu | ZITZAIZKIDAN |
| Hiri | | ZITZAIZKIAN/NAN |
| Hari | | ZITZAIZKION |
| Guri | | ZITZAIZKIGUN |
| Zuri | | ZITZAIZKIZUN |
| Zuei | | ZITZAIZKIZUEN |
| Haiei | | ZITZAIZKIEN |

Adibideak:

Neskari platera erori zitzaion.
 Hura ez zitzaidan gustatu.
 Laguna etorri zitzaizun.
 Tabakoa bukatu zitzaigun.

Neskari platerak erori zitzaizkion.
Haiek ez zitzaizkidan gustatu.
 Lagunak etorri zitzaizkizun.
 Zigarroak bukatu zitzaizkigun.